

DIRU - ITURRIAK

Bi bezero mota ditugu: gure aplikazioa instalatzen duten bezeroak, adibidez merkataritza-enpresa batzuetan interesa duten herriko pertsonak. Eta enpresa, adibidez, Ezagutzera eman nahi den enpresa txikiren bat, oro har.

Alde batetik, enpresak dira onura gehien ematen dizkigutenak, bezeroek bertan erosten baitute, eta gure aplikazioak teknikoki enpresaren bezeroak gidatzen ditu. Dendei haien publizitatea egiten laguntzen diegu, gure enpresa bitartekari moduan dago.

Hauek 250€ ordaindu behar dituzte gutxienez hileroko. Prezio hau aldatzen joan daiteke enpresaren tamainaren arabera, enpresa batzuk beste batzuk baino gehiago irabazten dutelako. Hau guztia urteko kontratu batean oinarrituta dago, nahiz eta denborarekin, enpresek guran konfiantza gehiago dutenean, kontratu honek denbora gehiagorako luzapena izango duen.

Beste alde batetik, gure aplikazioa jaisten duten bezeroak dira produktuak erosten dituztenak, eta beraiengatik irabazten den dirua enpresarentzat eta guretzat da, beraz, gure bezeroak ere badira. Gure enpresak aurrera jarraitu ahal izateko, gure bezeroek produktuak erostea behar dugu, ezinbestekoa da.

Hauek ez digute zuzenean dirua ematen, baina haien denbora ematen digute. Gero eta denbora gehiago aplikazioa erabiltzen, diru gehiago irabaziko dugu. Baita ere, beharrezkoa da bezeroek kontsumitzea, zenbat eta pertsona gehiagok gure aplikazioa jaisten badute, enpresa gehiagok izango dutelako konfiantza guran.